



Noizbait jakinen da...

Espainiako Gerra Zibila
Euskal Herrian

"Gorri nabarmen-
duenak bilduak eta
ilak bertze batzu, al-
diz lgesart emanak.

Bahituetarik egunero eta asko lekuetan sal-
doka il zituzten. Errietako berrien arabera,
berdin aritu ziren Erribera aldeko erri gei-
netan: Alako ertan ehun eta hamar ilak dit-
uzte, olakoa 120. Emengo egunkariak il
orren berriak ez dute eman eta oryatik ez da-
kigu zuzenki zenbat mila diren.../... Noiz-
bait jakinen da il direnak nor izandu diren
eta zenbat".

Gerrateak iraun zuen bitartean Fermin
Irigaray Larreak koademo xume zenbat-
tetan idaltzirik lerro hauek arras ongi la-
burbiltzen dituzte Nafarroan, 1936ko
udaz geroztik, garatu zen errepresio latza-
ren zenbait ezagutari: hilketa masiboak,

ihesak, isiltasuna eta zanpatuen jakinmi-
na. Mende erdi bat argitara eman gabe
egon diren idazle auriztarraren gogoetak
bildu dituen liburuaren izenburuak —
Gerta urre gezur urte— oso ondo doaklo
Nafarroako instituzioek —ez bakarrik urte
hautan, baita ondorengo hamarkadetan
ere— gerraren orolmenaz izan duten joka-
bideari.

Izan ere, gerrak ekarri zuen errepresioa-
rekin batera gezurra nagusitu zen erresu-
ma elizkoi horretan. Diario de Navarra-k
Mola jeneralak aldarrikatutako gerra ban-
doaren pean, urte asko iraungo zuen gezur-
arari hasiera eman zion uztailaren 19an,
bezperan albatuek hildako lehen biktimari
buruz plazaratu zuen ohar eufemistiko-
sarkastikoarekin: «Atzo gauaz zortziak eta
laurdenetan, zorigaitzoko lstripu baten on-

dotroz Guardia Zibilaren komandante zen
Jose Rodríguez Medelek bizia galdu zuen.
Colan bego".

Ez komunikabideek, ezta Nafarroako izen-
na hartuta duen unibertsitateko eremu
akademikook ere, ez zuten bultzatu inolako
salorik edo ikerketarik Nafarroako erreta-
goardian gertatu zen errepresio terrorista
argitzeko eta ezagutarazteko. Jaime Del
Burgó edo Ramon Salas Larrazabal bezala-
ko sasihistoriagile frankistek zabaldu zi-
tuzten gezurri aurre egiteko, hildakoen fa-
miliek beren kasa —beren senideen gor-
puak errekuperatu zituzten bezala— ikertu
eta ezagutarazi behar izan zituzten hilketen
gora-behera guztiak. Erreketen buruzagi
izan zen Del Burgoko emandako hilketen zi-
firak (446 legez kanpoko hildako eta 232 le-
gezkoak) eta Salas Larrazabal jeneralare-

nak (1.100 inguru) 2.787 hildako frogatuen
zerrendarekin gezuratu zituzten.

Nafarroako ezkerlarrek, errepublika-
rrek, baita euskal nazionalistek ere, pairatu
zuten errepresio bortitza zehaztasun handiz
argitu zuten profesionalak ez ziren historia-
gile arrunt eta anonimo auziteki; errepresio-
sialtuen senideen AFAN elkartearen bidez
lehenbiz, Altzafaylla Kultur Taldearen bul-
tadaz ondoren. Izen handiko unibertsitate
eta bere burua hain nafar aurkezten duten
zenbait kazetaren lotsarako, orolmen histo-
rikoak berreskuratu zutenak 1936ko udaz
geroztik —Bardeetan, Erriberako Ibarbaso
eta bide-bazterretan, Otxaportilloko leize-
an, eta abar— bizia galdu zutenen enborre-
koak ziren, klase herritokioak.

• Jose Chueca •

Uzta gorria

◆ Nafarroa hiru mila lagunengatik odolarekin tindatu
zuten eskuindar espainolistek ◆

DOLORES OROZKAK 20 URTE EGIN ZITUEN
eguna ez zen bere bizitzako urtebet-
etze zoriontsuena izan prezeki. 1936ko
iraila zen Azkolenen. Nafarroako Erriber-
an, eta Doloresi, bere herriko beste ehun
emakumeri bezala, buruko ile guztia moztu
zioten faxistek. "Ezkerrekoak ginen, bila
etorri zitzaizkigun eta ilea moztu ziguten,
denoi" gogoratzen du Doloresek 60 urte
ren buruan. Baina ez zen hori izan oker-
rea. "Nire familiako zazpi hil zituzten, lehen-
gusu eta ahañen artean. Sozialista baten
neskalaguna ere baninitzen, eta hura ere hil
egin zuten Milagron. Eta ez ziguten nega-
rrik egiten ere uzten kaleetan". Azkolen,
Milagro, Alesbes, Sartaguda, Lodosa... Her-
ri bakontzak Doloresena bezalako ehunda-
ka historia ditu.

Uztailaren 18ko altxamendu eskuindar-
rak berehalako arrakasta lortu zuen Nafa-
rroa osoan. Ez zen probintzia honetan ger-
rank izan, borroka militararen edo talde
armatuen arteko gatazkaren esanahia-
kin ulertu behar baldin badugu. Hala ere,
odolez tindatu ziren Nafarroako soto edo
ibarbasoak. Uztaietik azarora batez ere (baina ge-
re ere bai), eskuineko indarrek "garbiketari" ekin
zuten ihala esaten zuten, garbiketa etnikoa asma-
tu gabe zegoen urte haitetan) uztao tragiko har-
tan. Hiru mila hildako izan zen ondorioa, 2.789
biktima zire, zen-abizenekin, ikerketa osatuena-
ren arabera (Altzafaylla elkarteak argitaratutako
lan bat da ikerketa hori: Navarra 1936, de la espe-
ranza al terror. Kronika honetako datu asko testu
horretatik ateratzen dituzte).



1936ko Fronte
Popularraren mitin
baten kartela. Cayuela,
Ariz eta Osakar hil egin
zituzten udan,
Nafarroako ezkerre-
desagertarazteko
ahaleginaren.

"Sarraskiaren neurria ez da erraz ulertzen. Nafa-
rroako eskuindar dena zuen bere alde. Gatazka ba-
tzuk izan ziren Errepublikako urteetan; Erribera
aldean ezkerrek bazuen indarra laborari jorna-
leoren artean. Baina eskuinaren nagusitasuna era-
batekoa zen; etsaita kontrolatua zekuten, halako
garbiketarik egiteko premian gabe.

Era berean, errepresioa ez zen inolaz ere ezke-
rren erresistentzia menderatzeko saloa. Apenas
izan baziren erresistentziarik. Egoeraren jabe izan

ziren Beran, 24 ordu eskas. Irundik jo-
andako milizianoak eta bertako ezker-
tiarrak uztailearen 19an. Nafarroako beste
muturrean ere, Lodosan, egun horretan
ezkerleriarrak izan ziren nagusi, baina
biharamunean faxistek hartu zuten
kontrola. Lodosaren atrebenzia gogor
zigortu zuen eskuin espainolistak. 131
hildako izan zen ondorioa, iruñeak ba-
karrik galditzen duen kopurua. Por-
tzentailan, Sartagudak —alargunen her-
riak— du marka tristea: 84 hildako, be-
rritarren %6.

Biktima eta borroroak

"Fanatismo nazional-katolikoaren eta
oligarkia boteretsuaren interesak bar-
egitetik etorri zen hondamendia: Sektore
tradizionalistek (karlistak) eta falangis-
tek, apaiz askok xaxatuta, gorrien kon-
trato historia platu zuten altxamendua-
ren lehen unetik. Oligarkiak traba egiten
zioten ezkerreko sektoreak ezabatu nahi
izan zituzten, eta falangista taldeak baija-
tu zituzten horretarako. Faktore hauen
konbinazio hilgarriak Nafarroa osoa astindu zuen,
baina batez ere ezkerrekin indarra zuen tokietan
eragin zuen, hegoaldean. Iparraldeko industria
gune batzuetan ere latza izan zen errepresioa (Al-
tsasu, Olazti...).

Hiltzaileak ehundaka izan ziren, biktimak be-
ste. Talde antolatuek, herriko jauntxoak, Guardia
Zibila eta erakunde armatuak, fanatiko kontrol-
gabeak, mendeku personala bete nahi zutenak.
Hiltzaile asko mutikoak ziren, pistola zeukaten

hamasei urteko gazteak", kontatu digu Josefina Camposek, bere herriko gertaerak ikertzen ahalegin berezia egin duen emakumeak (Dolores Orduñaren alaba da). "Hiltzaileen artean ezkerreko jendea ere izan zen; saldu egin ziren, salatari eta hiltzaile bihurtu ziren. Azkoienen heriotzaren koadrila esaten ziotena egon zen. Ez bakarrik hemen, beste herri batzuetan ere egin zituzten barrabaskeriak", dio Camposek.

Herri bakoitzak baditu bere pertsonaia beltzak, Alesbesen erantzule nagusia bat izan zen. EGUNKARIAREKIN hitz egin duen Jose Arana lekukoak adierazi digunez: "Rodeznoko kondea pertsonaia erabakigarria izan zen. Beragatik izan ez balitz, Alesbeskoa ez zatekeen hain larria izango". Tomas Rodriguez Arevalo, Rodeznoko kondea, Alesbesko lurjabe handiena zen, pertsonala garrantzitsua Nafarroako politikan. Gerra bukatutakoan, Diputazioko presidentea ere izan zen eta Nafarroako seme kuttun izendatu zuten. Ohore hori lortzeko merezimenduen artean, Alesbesko garbiketara aipa daitezke: 40 hildako, horien artean alkate ohia, Izquierda Republicana Agustin Arana, Joseren alba.

Sanjurjoren Tertzioaren patua

Jose Aranak bere jaioterrian, Alesbesen, daukan etxean hartu gaitu. Luze jardun dugu berarekin. 17 urte zituela bizitakoak gogoratzen, baina aitari aipatzean, malkoak iruten zaizkio. "Ile mozketez nire onetik atera ninduten, irailaren 3an hasi ziren, eta erabakia hartua nuen jada, gure etxe-koak hartzeri erortzen baziren, alzo-arekin eraso egingo niela. Baina guri ez zitzaigun suertatu, eta handik egun batzuetara, irailaren 8an joan egin behar izan nuen", kontatu digu Aranak.

Ettxera etorri zitzaizkion falangistak bila, eta mehatxu ezaguna egin zioten: "Bide-baztertera edo erreketera". Atxilotu edo bertan hil ez zituzten ezkerriar askoren patua hori izan zen: frontera joan beharra, frankisten lerroetan borrokatzea derrigorrez. Beren kidekoen kontra borrokan hil ziren asko. Beste asko, aukera hori izan baino lehenago ere: Sanjurjoren Tertzioakoak.


Armadako gorputz hau ta osorik ezkerreko elementuekin osatu zuten, nafarrak asko, baina Erritxoa eta Aragoikoak ere bai (eskualde horietan antzeko errepresioa izan zuten; esaterako, Erritxoko Calahorran, Euskal Herriko mugan, 400 lagun baino gehiago hil zituzten). Zaragoza aldera bidali zituzten instrukzioa egitera irail hasieran. 700 bat gizon izan zituzten hilabetez entrenatzen, eta urrian, frontera borrokara bidali behar zituztenez, zurrumurrua zabaldu omen zen frontearen desertatu egingo zutela. Ondorioz, buelta emateko agindu eta berriz Zaragozako kuartel batean itxi zituzten, armak kendu ondoren. Besterik gabe, soldaduak exekutatzen hasi ziren, 10 eguneko irauan zuten sarraskiak, eta hildakoen kopurua zehazterik ez dago (arixabo militarrek itxita daude oraindik). Badirudi, dena den, 300 baino gehiago izan zirela. Alifayllak 218 nafar identifikatu ditu honen artean.

Ezkin asmatu motiboa

Derrigorretako soldadu izan zen, esan dugun bezala, Jose Arana Alesbeskoa. Hiru hilabete egin zuten Valladoliden, eta tartea horretan atxilotu eta hil zioten aita, Agustin, alkate izandakoa. "Aita urriaren 16an sartu zuten Alesbesko espetxean, eta 63 egun izan zuten. Handik atera eta hil egin zuten abenduaren 19an. Hain zuzen ere, Guardia Zibileko sarjentu batek hil zuen, berak ezagutzen



Derrigorrez soldadu bihurtutako lodosarrak: Paulino Campo, Jesus Martinez, Andres Ezkerro, Santiago Molinet eta Pedro Remirez. Bostak hil zituzten Sanjurjoren Tertzioan.



zuen batek, urteak egin baitarrien Alesbesen Serain Olkozek haritxek hil zuen, zuzenean, lepoan eman zuten tiroa". Baina Jose semeak ez zuen ezer jakin Valladoliden zegoen bitartean. "Etxean ez ziren ausartzen idagten zentsura bultzatzen, gutunazal gututak irakurten zituzten. Aita hil eta handik 15 egunera jakin nuen, zeharka gainera, lagun batek esan zidan, aita hil zitaidala. Ettxera abiatu, inisi eta handik ordu laurdenera, oraindik ez nekien hil egin zutela, heriotza naturala izan zela uste nuen".

Zergatik hil zuten? Beste krimen asko bezala, ez da motibo zuzenik ikusten. "Bizitza eman dut hipotesiak egin nire aitaren prozesuaren inguruan. Ezin asmatu", dio Jose Aranak. Beste hilketa batzuk mendeku hutsak izan ziren. "Intzidente bai gertatu zen errepublika garaian Alesbesen", diosku Aranak. "Lafraza izeneko batek eskuindar bat hil egin baitzuten. Gero mendekua hartu zuten faxistek, eta ez hiltzailea bakarrik bere sende asko ere hil egin zituzten". Horietako bat, emakumezko gazte bat, Carmen Lafraza, 25 urtekoa.


Sarraskian hildako emakumezkoak ez ziren asko izan gizonzkoekin konparatuta, baina herri askotan hil zuten bat edo beste. Azkoienen, Dolores Orduñak ezagutzen zuen Encarna Resano, 67 urtekoa, exekutatu zuten. Bere delitua, prozesio bati bizkarrak ematea (gor samarra omen zen eta beharbadá ez zituen hurbiltzen entzun). Beste kasu batzuetan, emakume progresista aurrerakoiak izan ziren biktimak. Adibidez, sozialisten *Trabajadores* agerkarian jaiotzen kontrolaren alde idatzi izan zuen emakume bat, Camila Arraiza Lizarrakoa, abuztuaren 10ean atera zuten kartzelatik eta hil egin zuten. Iraina gehituz krimenari, bi gizonzkoen gorpuen artean lurperatu zuten, sexuan ariko balira bezala.

Ezkerrenen aztarnak ezabatuta

Progresismoaren aztarna oro ezabatuta nahi izan zuen eskuinak. Bataio eta ezkontza zibiletarra behartu zituzten *gorriak*. Antikristotzat jotzen zituzten apaiz askok pulpituak, baina ateo haritarik asko jende arrunta ziren. Dolores Orduñak Andre Mariaren irudiak erakutsi dizkigu Azkolongo bere etxean, eta, hala ere, argi esan digu: "Gu *gorriak* gara, eta hil arte! Ni ez naiz berez *gorria*, baina bai, arraza horretakoa banait. Eta hil arte! Ez dit inork ahantzazaziko nik bizi izan dudana".

Erlizako sektore askok parte-hartze zuzena izan zuten Nafarroako sarraskian. Krimen loisagarrietakoa abuztuaren 23an gertatu zen Iruñean. Sagrarioko Andre Mariaren Irudiaren prozesioa egin zen, eta eskuineko indarrek 53 preso askatasun aginduak sina zituzten exijitu zieten agintari zibil eta militarrei. Prozesioaren omenez, erlijioaren izenean, "askatu" zituzten zorigaitzoko haiek. Baina askatasun aginduarekin, hiltzaile taldeek espetxetik atera eta erreprodera eraman zituzten. Zaragozarako bidara. Sei apaiz zihozzen haiekin, honen artean gero apozpiku izango zen Antonio Añoveros. Bardetarra iritsi zirenean, Valcaldera dentzen parajea, gelditu zituzten eta taldeka fusilatu zituzten preso guztiak. Bakar batek ihes egingo lortu zuen.

Baina elizak ere badiru biktimak (bizpahiru apaiz), sarraskia geldiarazten saiatu ziren apaizen artean. Horietako bat Casedako parrokoa izan zen. Eladio Zelaieta, azkoienarra. Herrian inor hil ez zezaten saiatu zen, baina atxilotu egin zuten eta beste 27rekin Sanjurjoren Tertzioa bidali zuten. Herriatik hiruki kilometroa, ordea, lerroitik atera eta hil egin zuten.



San Kristobalgorri gotorlekua: ehundaka preso hil ziren hemen, fusilatuta, galxorik edo huts egin zuen ihesaldian

Fortunato Agirre, fusilatuta jeltzalea

Errepresioaren biktima gehienak ezkerreko jendea izan ziren arren, abertzaletasuna ere jazarri zuten Nafarroako eskuin espainolistak. Errepresioak Iruñean jo zuten, Tafallan, Iturenen, Erriberako nazionalista bakanen artean...

Lizarran bereziki gogor jo zuten faxistek, bertan EAJK indar nabarmena baitzuen: Fortunato Agirre alkatea jeltzalea zen eta familia nazionalista nabarmenak zeuden bertan. Irujotarrak kasu. Lizarrako nazionalisten kontrako errepresioa bereziki historikoa izan zen. Biztanleei agiri, liburu, argazki eta irudi "separatista" guztiak entregatzeko agindu zitzaizten. Baita jantzi eta txistuak ere. "Separatistek ekarritako agur hitza" ere debekatu zuten; harrezkero, "adios" besterik ez. Agirre alkatea hil egin zuten besterik gabe. San Migel egunean, irailaren 29an, EAJKren Alderdi Egunean, hain zuten ere. Gaur bete da haren ekzekuzioaren 60. urteurrena.

Eromen hartan, kontaezinak bihurtu ziren krimen eta barribaskeriak. Cabanillas Satur-nino Gil "ibaitik atera zuten zerraldo, eskuak eta onak lotuta" zituela. Epaituegi diligenzien "argitan" suizidioa izan zela dirudi. Irakur daiteke *El Pensamiento Navarro*-ren 1936ko hermerotekan. Izabako Ciriaco Garate artzainak ere antzera hil omen zuen bere burua: "eta beste zenbaitek ere bai... Vianan ezezagun bat azaldu omen zen, eskale bat edo glizon atzeratu bat behar bada. Atxilotu zuten baina ez zuten hiltz egiten. Frantsesez galdekatzen ere saiatu ziren. alfer-alferrik "Ernusiarrak" jarri zioten ezizena. eta azkenean fusilatuta egin zuten "espia izateagatik". Etxerik gabeko ijitoak ere hil zituzten horrela.

Urbasako amildegiatarra ere bota zituzten zenbait fusilatuta, batzuk hilak, eta beste batzuk artean bizirik zeudela. Sakanako Industrietako ezker-tiar batzuek izan zuten amateria beltz hori. Hala ere, ehundaka lagun amilduta hil zituzten zurrumurruek ez dira egia. Otxapartilloko lezea ere jendea amilteko erabili zen.

Jose Arana
"Rodeznoko kondea
personaia
erabakigarria izan
zen. Beragatik izan
ez balitz, Alesbeskoa
ez zatekeen hain
larria izango"

Logikoa den bezala, kopuruz, Iruñean izan zen atxiloteta eta ekzekuzio gehien. Hiriburuan ekzekuzio legal asko egin ziren, eta ikuskizun publiko negargarria izan ziren egun askotan Gotorlekuko hormetan burututako fusilamenduak. Gazteluko Itzulia delakoan.

Eta hala ere, herri guztietan ez zen berdin gertatzen. Larragan 40 lagun hil zituzten, baina Mendigorrian, aldameneko herri batean, ez zen ekzekuziorik gertatu. Parrokoak eta bertako eskulnak beste jarrera bat posible zela erakutsi zuten, beren. 36ko uzta gorriaren hedadura eta bortizkeria are ulertezinagoak bihurtzen ditu horrek.

Terrearen beste alderdi bat purgatu izan ziren. Udal langile askok enplegua galdu zuten. Iruñeko Diputazioko eta Udaleko purga eta kaleratzeak nabarmenak izan ziren. Okerrago ere izan ziteke-



LUIS FERNANDEZ

José Arana,
Alesbesko alkate
errepublikar fusila-
tuaren izan zenaren
semea.

en; Mendavian zinegotzi gehienak, alkatea eta funtzionario asko ekexutatu egin zituzten. Eskolako irakasleen kontrako errepresioa ere azpimarratzekoa da. Nafarroako malsu eta maistra guztiak Ircki zitzaizten lkerketa. Beren erlijioetasuna, moralitatea, prentsa irakurtzeko ohiturak eta jora politikoak aztertu zituzten. 229 zigortu zituzten, lan gabe utzita edo herriz aldatuta.

Irakasleen prozesuak luze jo zuten, errepresioaren luzapen gisa. Hilketa masiboak, hala ere,

1936an gertatu ziren gehienak. Gero auktario biktimarek ere ez zen geratzen apenas hermetan. Hala ere, errepresioaren une gogorrenetako bat 1938an gertatu zen: San Kristobalgorri espetekoa.

San Kristobalgorri ihesa

Ezkaba edo San Kristobal izeneko mendia, Iruñetik iparraldera dagoen mulo ezaguna da. Karlituden ondoren militarrek gotorlekua eraiki zuten tontorrean hiria bertatik hobeto defenditzeko. 1934tik aurrera, aldiz, preso ezkerriarrak piltzeko erabili zuten. 1936an, Errepublikako azken hauteskundeetan, ezkerrek irabazi ondoren askatu egin zituzten preso haiek, baina altxamendu militarrek beriz bete zituzten gotorlekuko ziega miserabileak.

Errepresioaren lehen ihabetegian ekzekuzioak ere egin ziren San Kristobalen. "legalak" gutxi gora-behera, baina hurrengo hilabeteetan ere jendea hiltzeko makina izan zen presondegi hura: 1945 arte 305 preso hil ziren gaxorik. Hala ere, gertakari dramatikoena 1938ko ihesa izan zen.

1938ko maiatzaren 22an izan zen ihesaldi masiboa. Preso talde bat matxinatu eta espetxeaz jabetu zen. 2.487 preso zeuden orduan bertan piltatuta, eta ia 800 izan ziren ihes egiten ausartu zirenak. Antoiakuntzarik gabe, bitartekorik gabe, ihesaldi kaotiko

koa izan zen, presoak sakabanatu egin ziren mendiko maldetan behera. Errepresioa bortitza izan zen; militarrek basoetan ehizatu zituzten presoak, 585 preso atxilotu egin zituzten, eta 211 hil egin zituzten mendietan. Ekzekuzio hutsak izan ziren hauetariko gehienak. Atxilotuen artean epaiekak egin ondoren, beste 25 fusilatuta zituzten, iparraldeko muga hiruk bakarrik gainditu omen zuten. 50 urteren buruan, Salas Larrazabal jeneralak ez zituen errepresioaren biktima gisa zenbatu San Kristobalgorri hilak. Sarraski lotsagarri hurra "gerako ekintza" zela izan zen jeneralaren aitzaikla.

Ihes egin ondoren atxilotu zituztenen artean, Euskal Herriko preso politiko beterranoena egon zen, Jacinto Otxoa, Uxuekoa. Bi ihesaldi eta zenbait kartzelaldi ezagututako komunista honek 26 urte egin zituen, guztira, Francoren espetxeetan.

Gerraostea gogorra izan zen. "Sasoi latzak izan ziren, bai horiek", diosku Dolores Orduñak. "Nire



amark josi egiten zuten, eta nik ere bai, eta halaxe egin genuen aurrera. Gure artean hiltz egiten genuen gertatutakoak, baina beti beldurrez, ikaraturik". Gosea, beldurra. "Eta okerrera hiltzaileekin batera bizitzea izan zen", dio Jose Aranak.

Hildakoen eta hiltzaileen memoria gordez bizitza Jose, Erriberan.

• Luis Fernandez, Jose Chueca •
ALESBES, AZKOIEN



Memoria berreskuratzen

◆ Oraina markatzen segitzen du Nafarroan duela 60 urteko sarraskiak ◆

Berrogei urte iraun zuen derrigorrezko isiltasunak. Baina Franco diktadorea hil zenean, lurperatutako memoria berreskuratzen hasi ziren Nafarroako errepresaliatuen ondorengoak. 1976ko azarotik aurrera, zenbait herritan, exekuzioen zelaletara joaten hasi ziren herritarrak, hildakoak ateratzera. Haien gorpuak eta haien izenak berreskuratuz. Marcellan hasi ziren eta Nafarroa osoan segitu zuen mugimendu hark. 1978 arte, Josefina Campos Azkoiengoak parte zuzena hartu zuen egun haietako ekin-tza eta hileta gehienetan.


"Ez genuen oztopo handirik aurkitu", dio Camposek. "Baina Tafallan, hildakoak ateratzen ari ginen bitartean, denuntzia jarri zigun norbaitek. Sanjoanek ziren, euria ari zuten eta estalki bat jarri genuen lanerako. Baina batzuek hura ikusi eta bandera errepublikarra jarri genuela esan zituen Guardia Zibilaria".

Memoriaren exortzismo handi bat izan ziren ekintza haiek. Eskuindar askorentzat azaleratu nahi ez zuten iragan lotsagarri bat gogoratzea izan zen. Beste batzuentzat, ezagutzen ez zuten memoria berreskuratzea izan ere, gehienek bazekiten egia, baina izan zen 40 urtetan ezer ere sülsmatu ez zuenik. Josefina Camposek gogoan dauka kasu bat: "Berbinzanara joan ginen Azkoiengo neska batekin, haren osaba han hil zutelako. Lehen-gusuarengana joan ginen, eta hark esan zigun 'Zer esaten dida



LUIS FERNANDEZ

zue? Nik ez dakit honetaz ezer". Lehenguslakin esan zion, "ira, gure osaba, zure aita, hementxe hil zutela". Besteak ez zekien ezer. Umezurtz geratu ziren bi anaia, eta ama haurdun, alargundutakoan kartzelara bidali zuten. Askatu zutenean, seme-alabak aurrera ateratzeko elxe-tan garbitzen egon zen, beste



Berreskuratutako fusilatuen hiletak Lodosan, 1977an.

asko bezala, baina pulmontak jota hil egin zen. Aiton-amonak egin ziren haurren kargu, baina estuasun handia ematen ziela eta, ez zieten ezer kontatu haurrei".

Egun haietan, sasegu eta tinkotasun handia erakutsi zuen jendeak. Camposek gogoratzen duenez, "Senideek esaten zuten bat, 'zerriak! nola egin ziguten hau?'. Baina mendekua hartzeko gogorik ez zuen inork adierazi. Nik beti entzun-izan diet neurri-gurasoel. 'Jainkoak zigortuko ditu'. Justizia gure eskuak hartzen ez du inork sekula aipatu".

Orbandu gabeko zauriak

Hogei urte igaro dira biktimek beren hildako senideak berreskuratutako zutuztenik, 60 sarraskia gertatu zutenik. Hala ere, gerta-kari haien zauriak orbandu gabe daude oraindik Nafarroan. Iraganak oraina markatzen du oraindik. Josefina Camposen intziz, "aldaketa egon da" azken 20 urteotan. "Eskuinak, lehenbizi, hileta haiek ikusi zutenean, ateratzea egin zuen. Baina gero hauteskondeak irabazi zituzten

eta puztu egin ziren, indartuta sentitu ziren. Are gehiago, hemen Azkoiengo, 23-P-ko gauean -Tejeroren estatu kolpe saioan, 1981ean- bileran egin zuten militar batek eta azkoiendar batzuek, hil behar zituzteten zerrenda prestatu zuten, eta 'nongoen han' lehen: 'Azkoiengo gertatu zen hori, eta Corcellan ere bai, kasinon bildu ziren han. Berriz gauza bera gerta zitekeen', uste du Camposek.

Apur bat ezkon mintzo zaigu Campos. 'Ikusiñen ari gara' zer gertatzen ari den. Lehen egiten genituen gauzak hildakoak oroitzeko, Malatzaren Lehenean-eta bildu egiten ginen zenbait. Baina gero, senide batzuk aurka jarri ziren ari ziren, eskuneko lagunak egin zituztela, edo nahikoa jasan zutela. Beldurra ere badago, handia gainera. Pentasa nola aldatu diren gauzak ez, nik uste dut, 1976an egin genuena orain egitea tokatuko balitzalagu, ezin izango genuela egiti. Senide askok ez lukete ordukoa egingo".

Nolanahi ere, ahanzturaren aurka lan egiten segitzen dute askok Nafarroan. Jose Arana

Alesbeskoa da horietako bat. Berak bultzatu zuen 1984an egin zen hildakoen lehenbiziko kontaketa osatua. Salas Larrazabal jeneralak liburu bat kaleratu berri zuen, eta "metodo zientifiko"z, 1.100 pertsonatan "linkatu" zuen hildakoen kopurua. Iraina izan zen Nafarroako askorentzat. Jose Aranak bere erre-akzioa gogoratzen du: "Hau ezin liteke gera horrela, erantzunik gabe eta ezer gabe, putzu batean eron izan balitz bezala. Eta esan nuen, goazen liburu bat argitaratzera, nafarrez nafar, herriz herri".

Iragna estali

Ekimen horren ondorioa izan zen No. General liburu. Salas Larrazabali erantzun zuzena izan zen biktimek sentiariekop

AFAN elkarteak kaleratu zuen Mintzoa argitaldaria-ekin, eta Jose Arana izan zen liburua apailatu zuzena. Ez zuen lan erraza izan ditutak biltzen, "Zailtasunak aurkitu genituen, eta bai izan zen nagusia Orduan konturatu nintzen Alderdi Sozialistaren jarra-eraz zela inola ere nik espero nuen". PSNK, gerra aurreko PSOEn ondorengoak, iragna ez asuntzeko ahaleginak egin zituen. Aranak salatzen duenez, "Ez dakit zergatik zen hori. Ni ez nindoa mingo alderdiaren propaganda egitera, erantzun baten bila baizik, eta zenbat hil zituzten herri hartan berdin zen CNTkoak baziren, PCEkoak edo PSOEkoak Gainera, 480 ziren sozialistak! Baina nire aurrean jarrera itxia aurkitu nuen. Ez zuten erantzun nahi".

Aranak uste du goiko kontsignaren bat edo egon zela tartean "Nafarroan esaten dugun bezala, PSOEn jarrera zen urak ez nahastea. Baina nola ez ditugu nahasiko!, ia hiru mila hildako ditugu eta!", dio, oldartuta, 77 urteko gizon honek.

Nafarroako sarraskiaren kapituluaz ez dago oraindik erabat itxita "Orandik hildako gehienak izana eman gabe ditugu", komentatu digu Josefina Camposek. "Epez kanpoko izen-emate ireki zedin eskatu genuen duela bi urte, baina Tafallako epaileak ez du ezer egin. Ez ditu izenak fusilatutzat ematen. '36koaren ondorioz hilak' agertzen dira paperetan, baina Madrietik esaten dute 'fusilatua' ez badira agertzen ez dago-ela zer egiterik. Haren seme-alabak pentsioak ezin kobratutik Jabatika ondorioz".

• Luis Fernandez •

Orain arte argitaratuak

- 1. Konspirazioa eta alkamendua (1996-7-14)
- 2. Gipuzkoako konkista (1996-9-8)

Hurrengo kronika
Lehenbiziko Eusko Jaurlaritz